Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

KATEGORIA: AGIRITEGIKO TEKNIKARIA

BARNE SUSTAPENEKO TXANDA

1. **ARSENIO DACOSTAREN ARABERA, NOR DA AGINTARI GORENA LEINUAREN BARRUAN?**

    a. Korrejidorea.
    b. Ahaide nagusia.
    c. Foru alkatea.
    d. Merio nagusia.

2. **LUIS DE GUEZALAK «LA ZAMACOLADA (1804): BIZKAIA POR SUS FUEROS» IZENEKO OBRAN DIOENEZ, ZEIN DA ZUZENA ELIZATEEI DAGOKIENEZ?**

    a. Jaurerriko gobernu-organo bakarra ziren.
    b. Haien eginkizun nagusia beren lurraldeetako biztanleen gobernua eta administrazioa zen.
    c. Alkate batek, errejidore kapitularrek eta sindiko prokuradore nagusi batek osatzen zituzten.
    d. Epaitegi gisa jarduten zuten merkatarien eta merkataritza-kapitainen arteko auziak arintzeko.

3. **BIZKAIKO HISTORIA MODERNOAREN BARRUAN, ZER IZAN ZEN «1630. URTEKO KONKORDIA» DERITZONA?**

    a. Bilboko Kontsulatuaren eta Bilboko Hiribilduaren arteko akordioa; akordio horrek bi erakundeen arteko harremanak arautu zituen XVII. mendean.
    b. Gaztelako Koroaren eta Bizkaiko Jaurerriaren arteko akordioa; akordio horrek amaitutzat jo zuen Estanco de la Sal izenez ezagutzen denaren ondorioz bi erakundeen artean piztu zen gatazka.
    c. Batzar Nagusien erabakia; erabaki hori foru-heldutasunaren garaiko Bizkaiko egitura instituzionalaren sorrera-akta izan zen.
    d. Bizkaiko Jaurerriaren eta Gipuzkoako Probintziaren arteko ituna; itun horrek bi foru-lurraldeen arteko lankidetza-esparrua ezarri zuen XVII. mendetik XIX. mendera bitartean.

4. **ADRIÁN CELAYAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA BIZKAIKO FORU ZAHARRARI DAGOKIONEZ?**

    a. Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusian onartu zen 1452an, Gernikako Arbolaren azpian.
    b. Legeen eta ordenantzen laburbilduma da, eta Gipuzkoako Foruen urte berean onetsi zen.
    c. Korrejidoreak eman zuen ordezkariak biltzeko agindua, forua idazteko.
    d. Erregea ez zegoen behartuta haren xedapenak betetzera.

5. **BIZKAIKO HIRIBILDUEI BURUZKO BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?**

   a. 1199tik 1376ra bitartean hogeita hamar hiribildu eta hiri bat sortu ziren Bizkaian.
   b. Hiribilduak sortzeko prozesuak etapa bakarra izan zuen.
   c. Bizkaian sortutako lehenengo hiribildua Balmaseda izan zen, 1199an.
   d. Agiri bidez egiaztatuta dago Bizkaian sortutako lehenengo hiribildua Durango izan zela, 1180 inguruan.

6. **BIZKAIKO XVI. MENDEKO HISTORIOGRAFIARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA ERANTZUN OKERRA?**

   a. Gonzalo de Arredondok idatzitako «Recopilación de los Fueros Antiguos de Vizcaya» obrak ez du iraun gaur egunera arte.
   b. Fray Martín de Coscojalesen «Antiguedades de Vizcaya» obra osatzen duten zazpi liburukiek osorik diraute.
   c. Ibarguen-Cachopin kronika deritzon eta Juan Iñiguez de Ibargüenek idatzi zuen kronikak «Corónica general española y sumaria de la Casa Vizcayna» du izenburu.
   d. Tomás de Goicolea, Fray Miguel de Alonsotegui eta Francisco de Mendieta Bizkaiko kroniken egileak izan ziren XVI. mendean.

7. **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO DOKUMENTU-KUDEAKETA INTEGRALAREN ETA DOKUMENTU-ONDAREAREN 5/2022 LEGEAREN ARABERA, DOKUMENTU-MULTZO HAUETATIK ZEINEK OSATZEN DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO DOKUMENTU-ONDAREA?**

   a. Pertsona fisikoek ekoitzitako 100 urtetik gorako dokumentuek bakarrik.
   b. Eusko Jaurlaritzak espresuki «kultura-ondasun» deklaratu dituen dokumentuek bakarrik.
   c. 20 urtetik gorako antzinatasuna duten titulartasun pribatuko dokumentuek, haien balioa edozein dela ere.
   d. Edozein pertsona fisikok edo juridikok –publiko zein pribatu izan– Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean bere funtzioak edo jarduerak gauzatzean ekoitzi, bildu eta kontserbatutako intereseko dokumentuek.

8. **16/1985 LEGEAREN ARABERA, GUTXIENEKO ZER ANTZINATASUN IZAN BEHAR DUTE ENTITATE ETA ELKARTE POLITIKO, SINDIKAL EDO ERLIJIOSOEK ETA ENTITATE, FUNDAZIO ETA ELKARTE KULTURAL ETA HEZIGARRI PRIBATUEK SORTUTAKO DOKUMENTUEK ESPAINIAKO DOKUMENTU-ONDAREAREN PARTETZAT JOTZEKO?**

   a. 10 urte baino gehiago.
   b. 25 urte baino gehiago.
   c. 30 urte baino gehiago.
   d. 40 urte baino gehiago.

9. **NOLA DEFINITZEN DU AA-REN ETA AGIRITEGIKO PROFESIONALAREN ARTEKO HARREMANA ESTEVE I CASELLASEK ADIMEN ARTIFIZIALARI (AA) ETA AGIRITEGIEI BURUZ EMAN ZUEN HITZALDIAN?**

    a. AAk erabat ordeztuko du agirizain lanbidea urte gutxiren buruan.
    b. AA laguntza-tresna gisa ikusi behar da, ez irizpide profesionalaren ordezko gisa.
    c. AA bateraezina da datuak babesteari buruzko egungo araudiarekin.
    d. Agirizainek ez dute esku hartu behar algoritmoen diseinuan.

10. **GARDENTASUNARI, INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO BIDEARI ETA GOBERNU ONARI BURUZKO 19/2013 LEGEAREN 14. ARTIKULUAREN ARABERA, KASU HAUETAKO ZEINETAN MUGATU AHAL IZANGO DA INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA?**

    a. Interes ekonomiko eta komertzialak daudenean.
    b. Informazioa antzinakoa denean.
    c. Eskatutako informazioaren bolumena edo konplexutasuna handia denean.
    d. Kultura-ondarea babestu behar denean.

11. **CRUZ MUNDETEN ARABERA, ZEIN PRINTZIPIOK INSPIRATU BEHAR DUTE SAILKAPEN-KOADRO BAT EGITEA?**

    a. Mugaketak, zabaltasunak, egonkortasunak, bakartasunak.
    b. Sinplifikazioak, irisgarritasunak, mugaketak, zabaltasunak.
    c. Mugaketak, bakartasunak, egonkortasunak, sinplifikazioak.
    d. Aldakortasunak, zabaltasunak, egonkortasunak, bakartasunak.

12. **NOIZ ERAMANGO DA MINISTERIOETAKO AGIRITEGI ZENTRALETAKO DOKUMENTAZIOA ADMINISTRAZIO ZIBILEKO AGIRITEGI NAGUSIRA?**

    a. Agiritegietan sartu eta 10 urte betetzean.
    b. Agiritegietan sartu eta 15 urte betetzean.
    c. Agiritegietan sartu eta 25 urte betetzean.
    d. Agiritegietan sartu eta 50 urte betetzean.

13. ZEIN DA ERANTZUN OKERRA? BIZKAIKO AGIRITEGI HISTORIKO PROBINTZIALA:

a. Estatua da agiritegiaren titularra, eta kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaion. Beranduago, Eusko Jaurlaritzak kudeaketa hori Bizkaiko Foru Aldundiari eskualdatu zion.
b. Sortu zenetik, Bizkaiko Aldundiaren jauregiko sotoan dago; izan ere, aldundiek halakoak instalatzeko eta funtzionatzeko lokalak eta bitartekoak eman behar zituzten.
c. Erakunde publikoa da, izaera kultural eta administratiboa duena.
d. Funtzio nagusia ehun urteko notario-protokoloei buruzko eta Administrazio Zentraleko eta Instituzionaleko zerbitzu probintzialetako dokumentazioa jasotzea, kontserbatzea eta zabaltzea da.

14. 174/2003 DEKRETUAREN ARABERA, ZEIN DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRI ADMINISTRAZIOAREN ARTXIBO NAGUSIAREN EGINKIZUN NAGUSIA?

a. 100 urte baino gehiago dituzten dokumentuen agiritegi historiko gisa soilik jardutea.
b. Administrazio Orokorreko kudeaketa-agiritegiek eta, hala badagokio, Administrazio Instituzionaleko agiritegi zentralek transferitutako dokumentazioa jaso eta kudeatzea.
c. Erakunde autonomoen dokumentazioa zuzenean suntsitzea, aldez aurretik baloraziorik egin gabe.
d. Eusko Jaurlaritzako langile guztien nominak esklusiboki zentralizatzea.

15. PLÁCIDO BALLESTEROSEN ARABERA, ZEIN BAIEZTAPEN DA ZUZENA ALDUNDIEN AGIRITEGIEI DAGOKIENEZ?

a. Funts anitzeko agiritegiak dira, zenbait instituzio probintzialek sortutako dokumentazioa metatuz osatuak.
b. Erudituek bakarrik izan dezakete gordetako dokumentazio historikorako sarbidea, beren ikerlanetarako.
c. Funts pribatuak dohaintzen, lagapenen edo gordailuen bidez bakarrik irits daitezke.
d. Liburutegietan ez bezala, deskribapen artxibistikoaren informatizazioak ez du abantailarik ematen funtsen zabalkundea egiteko.

16. OLGA GALLEGOREN ARABERA, FAMILIA-AGIRITEGIAK DESKRIBATZEKO METODOLOGIAN, ELEMENTU HAUETAKO ZEIN DA TRESNA DESKRIBATZAILE ESPEZIFIKOA?

a. Aurkibide alfabetiko onomastikoa.
b. Gaien aurkibidea.
c. Zuhaitz genealogikoak.
d. Aurkibide alfabetiko geografikoa.

17. ÁLVAREZ COCAREN ARABERA, ZEIN DA NOTARIOTZAREN JATORRI HISTORIKOA?

a. Antzinako Erroma, *tabularii* eta *tabellionis* izenekoekin.
b. Erdi Aroa, kristau-erresumetako eskribauekin.
c. Errege-erregina Katolikoen garaia, notario-protokoloak sortu zirenean.
d. Notariotzaren 1862ko Legea.

18. GONZÁLEZ PEDRAZAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ENPRESA-AGIRITEGIETAKO DOKUMENTAZIOA KONTSERBATZEARI DAGOKIONEZ?

a. Zuzendaritza-organoen aktak kontserbazio iraunkorreko dokumentuak dira, haien lekukotza-balioa dela eta.
b. Ez da gomendatzen auditoria-txostenen kontserbazio iraunkorra, dagokion urtea igaro ondoren amaitzen baita haien administrazio-indarraldia.
c. Ez da gomendatzen pertsonal-espedienteen kontserbazio iraunkorra, langileei buruzko informazio asko biltzen baitute (soldata, familia, kultura-maila...).
d. Nahitaezkoa da kontabilitate-liburuen kontserbazio iraunkorra, haien balio administratiboa dela eta.

19. EUSKAL HERRIKO AGIRITEGIEN ZENTSUARI DAGOKIONEZ (1988), ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

a. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako agiritegien zentsua egin da.
b. Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresuaren ondorioz (Bilbo, 1983) sortutako proiektu bat izan zen.
c. Eliza Katolikoaren agiritegiak kanpoan utzi dira, haien titulartasuna dela eta.
d. Instituzio pribatuen agiritegiak ez daude zentsuaren barruan.

20. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOARI DAGOKIONEZ?

a. Bizkaiko protokolo guztiak zaintzen ditu, salbu eta oraindik ere Gernikako Batzar Etxearen Agiritegian gordetzen direnak.
b. Bizkaiko korrejidorearen funts judizialak dokumentazio bikaina dira Bizkaian justiziaren administrazioa nolakoa zen jakiteko.
c. Bizkaiko udalerriek sortutako dokumentazio historiko guztia zaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udal guztiek 1992an sinatutako lagapenerako lankidetza-hitzarmen baten bidez.
d. Aurrekoetako bat bera ere ez da zuzena.

21. CRUZ MUNDETEN ARABERA, ZEIN DA ARTXIBISTIKAREN FUNTSEZKO PRINTZIPIOETAKO BAT?

a. Administrazio-antolaketaren printzipioa.
b. Funtsak errespetatzearen printzipioa.
c. Ordenamendu kronologiko uniformearen printzipioa.
d. Gai teorikoen arabera sailkatzeko metodoa.

22. CRUZ MUNDETEN ARABERA, MATERIALEN BALIOARI ETA SARBIDEARI DAGOKIENEZ, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA AGIRITEGIKO DOKUMENTUEI DAGOKIENEZ?

a. Agiritegiko dokumentuek sarbide librea dute beti, sortzen direnetik.
b. Agiritegiko dokumentuek ez dute froga-baliorik.
c. Agiritegiko dokumentuek balio juridiko-administratiboa dute, eta gerta daiteke sarbide librerik ez izatea aldi baterako.
d. Agiritegietan eskuizkribuak baino ez dira gordetzen.

23. NOLA DEFINITZEN DU DIPLOMATIKAKO NAZIOARTEKO BATZORDEAK «TRADIZIO DOKUMENTAL» KONTZEPTUA?

a. Originalaren baliozkotze-marken eta zigiluen azterketa esklusiboa.
b. Dokumentuaren etapen segida, egileak nahi duen testutik behin betiko idatziz jasotakora iritsi arte.
c. Aurreko testu baten hitzez hitzeko transkripzioa berme juridikorik gabe.
d. Balio administratiboa galdu duten dokumentuak suntsitzeko prozesua.

24. RIESCO TERREROREN ARABERA, IDAZKETA-TRESNAN IZANDAKO ZEIN FUNTSEZKO ALDAKETA TEKNIKOK ERAGIN ZUEN LETRA KAROLINGIOTIK LETRA GOTIKORA IGAROTZEA?

a. Pergaminoa behin betiko uztea eta haren ordez papera erabiltzea.
b. Tinta begetalak erabiltzea tinta ferrogalikoen ordez.
c. Hegazti-lumak uztea eta haien ordez punta biribileko metalezko hegatsak erabiltzea.
d. Lumaren muturra beste modu batean ebakitzea, zeharka, ezkerrerantz.

25. CRUZ MUNDETEN ARABERA, AGIRITEGIEN ETAPEN BARRUAN, ZEIN DA KUDEAKETA-AGIRITEGIAREN EZAUGARRI NAGUSIA?

a. Balio administratiboa erabat galdu duten dokumentuak gordetzea.
b. Administrazio-unitateen erantzukizun eta maneiu zuzenaren pean egotea.
c. Bolumen eta konplexutasun handiko erakundeena baino ez izatea.
d. Bost urte baino gehiagoko antzinatasuna duten dokumentuak soilik gordetzea.

26. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA DOKUMENTUA SORTZEKO DATARI ETA TOKIARI DAGOKIENEZ?

a. «Tradizio dokumental» termino diplomatikoaren bidez izendatzen da.
b. Dokumentuaren kanpoko ezaugarri bat da.
c. Dokumentuaren datazio kronikoa eta topikoa ere esaten zaio.
d. Erantzun guztiak okerrak dira.

27. CRUZ MUNDETEN ARABERA, ZEIN DIRA ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEEN EGITURAZKO OSAGAIAK?

a. Dokumentuak, instalazio-unitatea, laburbilduma edo laburpena, eduki-zerrenda.
b. Dokumentuak, kanpoko karpetatxoa, baldukea, eduki-zerrenda.
c. Dokumentuak, txaplata, kanpoko karpetatxoaren signatura, laburbilduma edo laburpena.
d. Dokumentuak, kanpoko karpetatxoa, laburbilduma edo laburpena, eduki-zerrenda.

28. HEREDIA HERRERAREN ARABERA, ZEIN DA GUTXIENEKO EPEA DOKUMENTUAK EDO ESPEDIENTEAK BULEGO-AGIRITEGIETAN EDUKITZEKO?

a. Administrazio-izapidetzearen amaiera.
b. Dokumentuak gordetzeko epearen amaiera.
c. Dokumentuetarako sarbidea izateko epearen amaiera.
d. Ez dago gutxieneko eperik.

29. EGINKIZUN HAUETATIK, ZEIN EZ DA LEHENTASUNEZKOA TARTEKO AGIRITEGIETAN?

a. Kontserbatuko diren dokumentuen eta suntsituko direnen hautaketa segurtatzea.
b. Agiritegi historikoak oraindik jendearentzako sarbide librekoak ez diren dokumentuekin kolapsatzea saihestea.
c. Espedienteen unitatea eratu eta mantenduko dela segurtatzea, prozesu dokumentala behar bezala hasiz.
d. Jatorrizko administrazioari bere dokumentuetarako sarbidea bermatzea.

30. HEREDIA HERRERAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA AGIRITEGI HISTORIKOARI DAGOKIONEZ?

a. Kudeaketa-agiritegietatik dokumentazioa transferitzen zaion agiritegia da.
b. Haren eduki dokumentala kontserbazio iraunkorrekoa da funtsean.
c. Agiritegi mota horretan hasten eta arintzen da balorazio-prozesua.
d. Balio administratiboa duen baina administrazioak gutxitan erabiltzen duen dokumentazioa gordetzen du.

31. CRUZ MUNDETEN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA JATORRI-PRINTZIPIOARI DAGOKIONEZ?

a. Jatorri-printzipioa edo «respect des fonds» artxibistikaren funtsezko printzipioa da, eta dokumentazioa funtsen arabera biltzea da.
b. Printzipio horrek aukera ematen du dauden erlazioei eta dokumentuen testuingurutik ondoriozta daitekeen froga-garrantziari eusteko.
c. Funtsen jatorria errespetatzen du, baina ez dio zertan eutsi jatorrizko entitatearen berezko egiturari edo sailkapenari.
d. Aurrekoetako bat bera ere ez da zuzena.

32. AGIRITEGIETAKO EZOHIKO SARREREI DAGOKIENEZ, ZER DA DOKUMENTAZIOA EPE MUGAGABE EDO JAKIN BATERAKO GORDAILUTZEA, JABETZA HARTZAILEARI TRANSFERITU GABE?

a. Dohaintza.
b. Legatua.
c. Berrintegrazioa.
d. Komodatua.

33. CRUZ MUNDETEN ARABERA, AGIRITEGI HISTORIKOAK ZENBAIT ZERBITZU ESKAINTZEN DITU KULTURAREN ZABALKUNDE HANDIAGOA EGITEKO ETA KULTURA ESKURAGARRIAGO IZATEKO. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

a. Eman behar dituen zerbitzuak erraz zedarritu daitezke, hartzaile-taldea mugatua izaten delako.
b. Hezkuntza-zerbitzua agiritegi gehienen eskura dago, gutxieneko giza baliabideak eta baliabide materialak eskatzen dituelako.
c. Erakusketak ez dira kontuan hartzen; izan ere, publiko oso zehatz bati zuzenduta daudenez eta publiko orokorrarentzat erakargarriak ez direnez, ez dute funtsen zabalkunde handiagoa egiten laguntzen.
d. Agiritegi historikoaren zerbitzu klasikoak hauek dira: ikerketarako zerbitzua, erakusketak eta hezkuntza-zerbitzua.

34. ARGAZKIGINTZAKO PROZESU HAUETATIK, ZEINEK ERABILTZEN DU BEIRA EUSKARRITZAT?

a. Anbrotipoak.
b. Dagerrotipoak.
c. Kalitipoak.
d. Platinotipoak.

35. ZEIN AGIRITEGITAN DAGO GORDETA MALUMBRES SENDIAREN PIANOLA BIRIBILKIEN BILDUMA?

a. Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan.
b. Gipuzkoako Artxibo Orokorrean.
c. Eresbilen.
d. Euskadiko Artxibo Historikoan.

36. DATAZIO KRONOLOGIKOAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

a. Kristau-aroak datatutako dokumentu guztietan data berean hasten da urtea.
b. Pazko Garizumakoaren estiloa maiz erabili zen Irlandan, dokumentazioan urtea hasteko modu gisa.
c. Greziarrek izendatu zituzten beren jainkoei eskainitako asteko zazpi egunen izenak.
d. Kalenda hilabete bakoitzeko lehen eguna da, eta, gainera, hilabetea osatzen duten hiru aldietatik luzeena da.

37. RODRÍGUEZ DE DIEGOREN ARABERA, ZABALDUTA DAGOEN IRITZIA DA GAZTELAKO KOROAN AGIRITEGIRIK EGON EZ IZANAREN ARRAZOIETAKO BAT, ERABAKIGARRIENA BEHARBADA, HAUETAKO BAT DELA. ZEIN?

a. Gortearen izaera ibiltaria eta erakundeak sakabanatuta egotea.
b. Dokumentu zibilak metatzeko Elizaren berariazko debekua.
c. Euskarritzat papera bakarrik erabiltzea, zeina azkar hondatzen baitzen.
d. Langile alfabetaturik ez egotea Gaztelako Gortean.

38. NOTARIOTZAREN LEGEAN JASOTAKO DEFINIZIOAREN ARABERA, KONTZEPTU HAUETAKO ZEIN DA URTEBETEAN BAIMENDUTAKO ESKRITURA MATRIZEEN BILDUMA ORDENATUA?

a. Notario-bilduma.
b. Notario-konpilazioa.
c. Notario-protokoloa.
d. Aurreko bat bera ere ez da zuzena.

39. DOKUMENTAZIO JUDIZIALAREN BARRUAN, «PROBIDENTZIA» DOKUMENTU MOTA(K):

a. Prozesuaren antolamendu materialarekin du zerikusia, eta ez du zertan oinarri juridikorik izan.
b. Organo judizialen arteko komunikazio ofiziala da, zeinaren bidez epaile batek beste bati eskatzen baitio bere kabuz betearazi ezin duen egintza prozesal bat.
c. Edozein instantzia edo errekurtsotako kausaren gaineko behin betiko erabakia da, oinarri juridikoa izan behar duena.
d. Epaile edo auzitegi batek emandako ebazpena da, gai prozesalei edo prozeduraren alderdi jakin batzuei buruz erabakitzen duena, baina prozesuari amaiera ematen ez diona.

40. UDAL-DOKUMENTAZIOAREN BARRUAN, ZEIN ESPEDIENTE MOTATAN IZAPIDETZEN DA ERAIKINEN AZALERA EDO BOLUMENA HANDITZEA ETA/EDO ALDATZEA DAKARREN OBRA-LIZENTZIA?

a. Obra txikiko espedientea.
b. Obra handiko espedientea.
c. Irekiera-espedientea.
d. Hirigintza-ziurtagiriaren espedientea.

41. ZEIN URTETATIK AURRERA EZARRI ZEN ERABAT ESPAINIAN PARROKIEK BATAIOEN ETA EZKONTZEN ERREGISTRO-LIBURU BAT EGUNEAN IZATEKO BETEBEHARRA?

a. 1525.
b. 1553.
c. 1564.
d. 1614.

42. GONZÁLEZ PEDRAZAREN ARABERA, ENPRESA BATEN DOKUMENTAZIOAN ETA ARTXIBISTIKAREN IKUSPEGITIK, ZEIN EZ DA HARTZEN ENPRESA BAT ERATZEKO DOKUMENTUTZAT?

a. Estatutuak.
b. Urteko kontuak.
c. Identifikazio fiskaleko kodea edo zenbakia.
d. Eratze-eskritura.

43. ADMINISTRAZIO-DOKUMENTUEN OINARRIZKO SAILKAPENARI DAGOKIONEZ, JASOTZEN DUTEN ADIERAZPEN MOTAREN ARABERA, ZEIN ATALETAN BANATZEN DIRA DOKUMENTUOK?

a. Transmisio-dokumentuak, judiziokoak, herritarrenak eta kontabilitatekoak.
b. Transmisio-dokumentuak, erabakitzekoak, frogatzekoak eta herritarrenak.
c. Erabakitze-dokumentuak, transmisiokoak, jasotzekoak, judiziokoak eta herritarrenak.
d. Erabakitze-dokumentuak; transmisiokoak; erregistro eta kontrolekoak, eta herritarrenak.

44. CRUZ MUNDETEK T.R. SCHELLENBERG AIPATZEN DU, DOKUMENTUAK SAILKATZEKO KONTUAN HAR DITZAKEGUN ELEMENTUAK EDO IRIZPIDEAK EZARTZEARI DAGOKIONEZ. ZEIN DIRA?

a. Dokumentu-euskarria, egitura organikoa eta gaiak.
b. Ekintzak edo helburuak, egitura organikoa eta gaiak.
c. Ekintzak edo helburuak, dokumentuen jatorria eta testuinguru historikoa.
d. Dokumentuen izaera, egitura organikoa eta testuinguru historikoa.

45. ZEIN DOKUMENTU-MULTZORI DAGOKIO DEFINIZIO HAU: «ORGANO BATEK, EDO FUNTZIO BAT DELA-ETA, EGINDAKO JARDUEREN LEKUKOTZA DOKUMENTAL ETA JARRAITUA»?

a. Dokumentu-seriea.
b. Dokumentu-funtsa.
c. Dokumentu-bilduma.
d. Dokumentu-sekzioa.

46. ZEIN DA ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK ORDENATZEKO ERABILTZEN DEN METODORIK OHIKOENA?

a. Alfabetikoa.
b. Zenbakizkoa.
c. Alfanumerikoa.
d. Kronologikoa.

47. ZEIN DA ISO 15489-1:2016 «INFORMAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA: DOKUMENTU-KUDEAKETA» ARAUAREN APLIKAZIO-EREMUA?

a. Artxibatze-sistema elektronikoak dituzten erakunde publikoei bakarrik aplikatzen zaie.
b. Dokumentu fisikoen kudeaketa bakarrik arautzen du.
c. Dokumentuak denboran zehar eta edozein formatu, egitura, antolaketa-ingurune eta ingurune teknologikotan sortzeari, atzemateari eta kudeatzeari aplikatzen zaio.
d. Lankidetzako ingurune digitaletan sortutako dokumentuetara mugatuta dago.

48. TEORIA ARTXIBISTIKOAREN ARABERA, ZEIN DIRA GIDA BATEN EZAUGARRIAK, DESKRIBAPEN-TRESNA GISA?

a. Dokumentu-transferentziari laguntzeko diseinatutako tresna da, eta serie eta espediente aktiboak bakarrik erregistratzen ditu.
b. Zerrenda tekniko bat da, signatura topografikoen eta dokumentu-unitateen arteko korrespondentzia ezartzen duena, testuinguruari buruzko informaziorik eman gabe.
c. Dokumentu-unitate sinpleak zehaztera bideratutako tresna da, eta haien edukiari buruzko informazio osoa ematen du.
d. Dokumentu-multzo handiak deskribatzen dituen tresna da; ekoizleei buruzko informazioa ematen du, eta dokumentu-multzo horiek zaintzen dituen agiritegiari eta haren zerbitzuei buruzko informazio osagarria ematen du.

49. DESKRIBAPEN ARTXIBISTIKORAKO NAZIOARTEKO ARAU OROKORRAREN (ISAD-G) ARABERA, INFORMAZIO DESKRIPTIBOAREN ZEIN ATALETAN DAGO DESKRIBAPEN-UNITATEAREN JATORRIARI ETA ZAINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA?

a. Testuinguruaren atalean.
b. Identifikazioaren atalean.
c. Oharren atalean.
d. Deskribapenaren kontrolaren atalean.

50. ERAKUNDE, PERTSONA ETA FAMILIEI BURUZKO AGIRITEGIEN AUTORITATE-ERREGISTROEI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAN (ISAAR - CPF), ZEIN INFORMAZIO-ATALETAN DESKRIBATZEN DIRA DOKUMENTUEN EKOIZLEEN HISTORIA, EGINKIZUNAK, TESTUINGURUA ETA JARDUERAK?

a. Deskribapenaren atalean.
b. Identifikazioaren atalean.
c. Kontrolaren atalean.
d. Erlazioen atalean.

51. CARRASCAL SIMÓNEN ARABERA, ZER EDUKI DOKUMENTAL IZAN BEHAR DITUZTE PROIEKTU ARKITEKTONIKOEK?

a. Memoria, planoak, baldintza-agiria, neurketak eta aurrekontua.
b. Memoria; arkitektoaren plano artistikoak eta zirriborro kontzeptualak, eta erakunde eskudunak emandako hirigintza-lizentzia.
c. Planoak, baldintza-agiria, orubearen eta eraikin eraikiaren argazkiak, arkitekto arduradunaren kaudimen-datuak eta iradokitako materialen zerrenda.
d. Memoria, aurrekontua, kronograma jasotzen duen eskaleta eta proposatutako obraren aurrerapena.

52. BADA DOKUMENTUAK HAUTATZEKO MODU BAT, ZEINEAN SUNTSITZETIK KANPO UTZIKO DEN DOKUMENTAZIOAREN ZATI BAT BEREIZI ETA GORDETZEN BAITA, ZATI HORI GUZTIAREN EZAUGARRIEN ETA EDUKIAREN ADIERAZGARRI IZAN DADIN. ZEIN DA HAUTATZE-MODU HORI?

a. Kontaketa.
b. Laginketa.
c. Iraulketa.
d. Erkaketa.

53. CRUZ MUNDETEN ARABERA, M. C. PESCADORREK DIOENEZ, ERREGISTRO HAUETAKO ZEIN DA AGIRITEGI-ZERBITZUA KONTROLATZEKO TRESNA BAT, ETA EZ EDUKIA KONTROLATZEKOA?

a. Funtsen erregistroa.
b. Erabiltzaileen erregistroa.
c. Inbentario kuantitatiboa.
d. Entregen zerrendak.

54. ERAKUNDE, PERTSONA ETA FAMILIEI BURUZKO AGIRITEGIEN AUTORITATE-ERREGISTROEI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAN (ISAAR - CPF), ZEIN DESKRIBAPEN-ELEMENTUTAN JASOTZEN DA EA ERAKUNDEA, PERTSONA EDO FAMILIA DEN?

a. Estatutu juridikoan.
b. Eginkizun, okupazio eta jardueretan.
c. Erakunde motan.
d. Barne-egituran.

55. ZEIN ERAKUNDEK ESKAINI ZION BERE ARAUA ISO-RI (INTERNATIONAL ORGANIZATION FOR STANDARDIZATION), TESAUROEI ETA BESTE HIZTEGI BATZUEKIKO ELKARRERAGINGARRITASUNARI BURUZKO NAZIOARTEKO ESTANDAR BERRIA (ISO 25964) GARATZEKO OINARRI GISA?

a. Espainiako Normalizazio Erakundea (AENOR).
b. American Society of Indexers (ASI).
c. Association for Library Collections and Technical Services (ALCTS).
d. British Standard Institution (BSI).

56. AGIRITEGI BATEN INSTALAZIO-UNITATEAK INSTALATZEN DIRENEAN ETA SIGNATURA JARTZEN ZAIENEAN UNITATE HORIEK ESPAZIOAN DUTEN KOKAPENA ADIERAZTEKO (GORDAILUAK, SEKZIOA, BLOKEA, APALA, POSIZIOA), ZER INSTALAZIO MOTAZ ARI GARA?

a. Sekuentziala.
b. Kronologikoa.
c. Helbidea.
d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

57. NONGO AGIRITEGIEN ATARIAREN IZENA DA DARA?

a. Asturias.
b. Nafarroa.
c. Andaluzia.
d. Aragoi.

58. AGIRITEGIEN EGINKIZUN KULTURALARI DAGOKIONEZ, ZEIN AGIRITEGI NAZIONALEK SORTU ZUEN 1950EAN HEZKUNTZA-ZERBITZU BAT, ESKOLAN HISTORIA IRAKASTEKO TRESNA OSAGARRI IZATEKO?

a. Erresuma Batuko The National Archives agiritegiak.
b. Danimarkako Rigsarkivet agiritegiak.
c. Frantziako Archives Nationales agiritegiak.
d. Estatu Batuetako National Archives agiritegiak.

59. CRUZ MUNDETEN ARABERA, AGIRITEGI BATEN ERAIKINAREN SEGURTASUN-FAKTOREA KONTUAN HARTUTA, ZEIN DA AGIRITEGI-GORDAILU BATEK GAINDITU BEHAR EZ LUKEEN GEHIENEKO ALTUERA?

a. 1,90 metro.
b. 2,00 metro.
c. 2,50 metro.
d. 3,00 metro.

60. ARSENIO SÁNCHEZEN ARABERA, AGIRITEGI BATEAN SUTEA GERTATUZ GERO, PAPEREZKO DOKUMENTU BATEK ZER TENPERATURATATIK GORA HASIKO LUKE PIROLISI-PROZESUA, ETA IZANGO LITZATEKE SUNTSIPEN-MAILA ITZULEZINA?

a. 150 gradu zentigradu.
b. 280 gradu zentigradu.
c. 293 gradu zentigradu.
d. 300 gradu zentigradu.

61. GATZ FERRIKOZ ETA POTASIO FERROZIANUROZ OSATUTAKO SOLUZIOZ BUSTITAKO PAPER BATEK MARRAZKI ZURIAK EGITEN DITU HONDO URDINAREN GAINEAN. ZER DA PAPER HORI?

a. Zianotipoa.
b. Diazotipia.
c. Van Dyke.
d. Azetato-papera.

62. ELKARRERAGINGARRITASUNEKO ARAU TEKNIKOA APLIKATZEKO GIDAREN ARABERA, «DOKUMENTU ELEKTRONIKOARI» DAGOKIONEZ, ELEMENTU HAUETATIK ZEIN EZ DA ADMINISTRAZIO-DOKUMENTU ELEKTRONIKO BATEN PARTE?

a. Sinadura elektronikoa.
b. Edukia, informazioaren oinarri den datu-multzotzat hartuta.
c. Protokolo-eskema.
d. Metadatuak.

63. DE LA OSSA DÍAZEN ARABERA, DIGITALIZAZIO BATEAN, PIXELAK ZURIAK EDO BELTZAK BADIRA, KONTRASTE HANDIKOAK, ETA KONTRASTE HANDIKO TESTU INPRIMATU EDO MEKANOGRAFIATUETARAKO ERABILTZEN BADIRA, ZER BEHAR DA?

a. 1 bit pixel bakoitzeko.
b. 8 bit pixel bakoitzeko.
c. 24 bit pixel bakoitzeko.
d. 32 bit pixel bakoitzeko.

64. MAÑARICUAREN ARABERA, ZEIN TESTUTAN AGERTZEN DA «BIZCAI» (BIZKAIA) IZENAREN AIPAMENIK ZAHARRENA?

a. Alfontso III.aren Kronikan.
b. Bizkaiko Foru Zaharrean.
c. Donemiliagako glosetan, Donemiliaga Kukulako monasterioan.
d. Lope García de Salazarren *Las Bienandanzas e Fortunas* lanean.

65. 232/2000 DEKRETUAREN ARABERA, EUSKAL HERRITARREN DOKUMENTU-ONDAREAN SARTUTAKO AGIRIAK, HORIEN TITULARRA ERAKUNDE PUBLIKO BAT BADA:

a. Besterendu daitezke.
b. Enbargatu egin daitezke.
c. Jabari publikokoak dira.
d. Preskripzio bidez eskura daitezke.

66. ZEIN LEGE-DOKUMENTUK FINKATU ZUEN NOTARIOTZAREN INSTITUZIOA ESPAINIAN, ERDI AROAN?

a. Alfontso X.aren Partiden kodeak.
b. Gaztelako Errege Foruak.
c. 1503ko Pragmatikak.
d. Bilduma Berri-berriak.

67. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOARI DAGOKIONEZ?

a. Enpresa atalean, jendearen eskura daude Bizkaiko Labe Garaien funtsak eta Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España elkartearenak.
b. Musika atala Carmelo Bernaolaren dohaintza bat zela-eta sortu zen.
c. Notariotza atalean, Bizkaiko eskribauek 1504tik 1899ra bitartean sortutako dokumentazio historikoa gordetzen da.
d. Familia atala 1953an Villaríasko Markesaren agiritegiaren sortze-dohaintza eginda hasi zen.

68. «LITTERA BASTARDA» EDO IDAZKERA ENDEKATU DERITZONARI DAGOKIONEZ, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

a. Aristokraziaren luxuzko liburuetan soilik erabilitako idazkera kaligrafiko hutsa da.
b. Oso trazu bertikala eta begiztarik edo inklinaziorik eza dira idazkera horren ezaugarriak.
c. Jatorriz etzanak diren idazkerak dira, eta ezaugarri bereizgarri bat dute *h*, *m* eta *n* letretan, «elefante-tronpa» izenez ezagutzen dena.
d. Italiako humanistek iparraldeko herrialdeen «hausturaren» aurka egiteko sortutako idazkera izan zen.

69. ZEIN AGIRITEGITAN DAGO ZIORTZAKO KOLEGIATAKO DOKUMENTU-FUNTSA?

a. Euskadiko Artxibo Historikoan.
b. Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboan.
c. Bizkaiko Agiritegi Historiko Probintzialean.
d. Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan.

70. PABILOI, ERAIKIN, TRASTELEKU ETA ANTZEKOETAN AHAZTUTA UTZI DIREN DOKUMENTU-FUNTSAK, INORK EZ BADU HAIEN GAINEKO ERANTZUKIZUNIK HARTZEN, ETA INSTALAZIOKO ARDURADUNEKIN ALDEZ AURRETIK ADOSTUTA, PREMIAZKOA DENEAN, AGIRITEGIETARA ERAMATEN DIRA. NOLA ESATEN ZAIO HALAKOAK AGIRITEGIETAN SARTZEARI?

a. Zuzeneko transferentzia jarraitua.
b. Zuzeneko masako transferentzia.
c. Mailegu-transferentzia.
d. Transferentzia progresiboa.

71. DOKUMENTAZIO JUDIZIALAREN BARRUAN, ZEIN DA PROZESU ZIBILETAN DEMANDATZAILEAK SUSTATUTA EPAIKETA HASTEN DUTEN EGINTZA PROZESALEN DOKUMENTU MOTA ADIERAZGARRIENA?

a. Salaketa.
b. Kereila.
c. Demanda.
d. Polizia-atestatua.

72. HAUETATIK ZEIN DA DOKUMENTU-MULTZO ARTIFIZIAL BAT?

a. Dokumentu-seriea.
b. Dokumentu-funtsa.
c. Dokumentu-bilduma.
d. Dokumentu-sekzioa.

73. DESKRIBAPEN ARTXIBISTIKORAKO NAZIOARTEKO ARAU OROKORRAREN (ISAD-G) ARABERA, INFORMAZIO DESKRIPTIBOAREN ZEIN ATALETAN DAUDE EGITURATUTA DESKRIBAPEN-ELEMENTUAK?

a. Identifikazioaren atala, Testuinguruaren atala, Indexazioaren atala, Sarbidearen eta erabileraren atala, Oharren atala, Deskribapenaren kontrolaren atala eta Loturiko dokumentazioaren atala.
b. Lokalizazioaren atala, Edukiaren eta egituraren atala, Testuinguruaren atala, Loturiko dokumentazioaren atala, Sarbidearen eta erabileraren atala, Oharren atala eta Deskribapenaren kontrolaren atala.
c. Lokalizazioaren atala, Ekoizleen atala, Testuinguruaren atala, Loturiko dokumentazioaren atala, Sarbidearen eta erabileraren atala, Oharren atala eta Deskribapenaren kontrolaren atala.
d. Identifikazioaren atala, Testuinguruaren atala, Edukiaren eta egituraren atala, Sarbidearen eta erabileraren atala, Loturiko dokumentazioaren atala, Oharren atala eta Deskribapenaren kontrolaren atala.

74. KOPIA AUTENTIKOEN KATEGORIEN BARRUAN, ZERTAN BEREIZTEN DIRA *VIDIMUS*A ETA «NOTARIO-TRASLADOA»?

a. *Vidimus*a kopia sinplea da, eta trasladoa, berriz, berritze juridikoa.
b. Notario-trasladoak jatorrizko egilearen presentzia eskatzen du beti; *vidimus*ak, berriz, ez.
c. *Vidimus*a agintaritza baten zigiluak bermatzen du; trasladoa, berriz, notario baten zeinuak eta sinadurak bakarrik.
d. Ez dago alderik; bi terminoak garai desberdinetako sinonimoak dira.

75. KARTOGRAFIAREN BARRUAN, ETA LUR-EREMUA EZAGUTZEKO ETA DOKUMENTU KARTOGRAFIKO KONBENTZIONALAK ETA DIGITALAK EGITEKO OINARRI GISA, ZER DA ORTOARGAZKIMAPA BAT?

a. Aireko argazkietatik abiatuta sortutako mapa, tokiko eskala batera bakarrik doitua.
b. Satelite-mapa baten argazkiaren bertsio sinplifikatua; irudian ikusten diren bandak baino ez ditu jasotzen, irakurgarritasuna hobetzeko.
c. Argazki-mapa bat, zeinean itzalak eta objektu mugikorrak (ibilgailuak edo pertsonak, adibidez) ezabatu baitira, hirigintza-arloan errazago erabiltzeko.
d. Lurreko gainazalaren aireko argazki bertikala, eskalan egina, elementu guztiak jasotzen dituena.

76. GONZÁLEZ PEDRAZAREN ARABERA, ENPRESA-AGIRITEGIEN ARAUDIARI ETA IZAERARI DAGOKIENEZ, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

a. Lege-arau bat dago, enpresa guztiak behartzen dituena agiritegi-zentroak sortzera eta mantentzera.
b. Merkataritza-sozietateek beren eginkizunak betetzeko sortu eta jasotako dokumentuen multzoa da.
c. Enpresak berak sortutako dokumentuek bakarrik osatzen dituzte.
d. Jabetza pribaturako eskubideak ez die eragiten enpresa-agiritegietako dokumentuei.

77. ZEIN URTETAN INAUGURATU ZEN ESPAINIAKO AGIRITEGIEN ATARIA (PARES)?

a. 1999an.
b. 2002an.
c. 2007an.
d. 2016an.

78. ZEIN ORGANORI DAGOKIO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO DOKUMENTU-ONDAREAREN INBENTARIOA OSATZEA, EGUNERATZEA, KOORDINATZEA ETA HAREN ZABALKUNDEA EGITEA?

a. Agiritegien eta dokumentu-ondarearen arloan eskumena duten lurralde historikoetako sailei.
b. Euskadiko Artxibo Historikoari.
c. Agiritegien eta dokumentu-ondarearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.
d. Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazioaren Balioespenerako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordeari (COVASADE).

79. ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOAREN BARRUAN, AUKERA HAUETAKO ZEIN DA TRANSMISIO-DOKUMENTU BAT?

a. Akordioa.
b. Akta.
c. Txostena.
d. Jakinarazpena.

80. TEORIA ARTXIBISTIKOAREN ESPARRUAN, ZEIN DA INBENTARIOAREN ETA KATALOGOAREN ARTEKO FUNTSEZKO ALDEA?

a. Inbentarioan, irizpide tematikoen arabera antolatzen dira dokumentuak, eta katalogoan, berriz, jatorriaren arabera bakarrik.
b. Inbentarioaren oinarria da dokumentu-serieak osatzen dituzten instalazio-unitateak deskribatzea, eta haien edukiari eta kokapenari buruzko informazioa ematen du; katalogoan, berriz, dokumentu-unitate sinpleak edo konposatuak zehatz-mehatz eta banaka deskribatzen dira.
c. Inbentarioa tresna narratibo bat da, funtsaren testuinguru historikoa interpretatzen duena; katalogoa, berriz, tresna kuantitatibo hutsa da.
d. Inbentarioa agiritegi historikoetan baino ez da erabiltzen, eta katalogoa agiritegi administratibo aktiboetan bakarrik.

81. ELIZAREN DOKUMENTAZIOKO ZEIN LIBURUTAN AURKI DAITEZKE BIZTANLEEN BATAIO-DATUAK?

a. Hamarrenen liburuetan.
b. Fabrika-liburuetan.
c. Bisita-liburuetan.
d. Sakramentu-liburuetan.

82. ENPRESA BATEN DOKUMENTAZIOAN, ZEIN DOKUMENTU DA ENPRESA BATEN SOZIETATE-KAPITALAREN ZATI DEN ETA BAZKIDE BATEK ENPRESAN DUEN PARTAIDETZA ADIERAZTEN DUEN ONDARE-EKARPEN BAT?

a. Balio-kontua.
b. Sozietatearen kapitalaren akta.
c. Akzioa.
d. Kapital-kontratua.